ARABA GARAPEN AGENTZIA SA SOZIETATEAREN ZERBITZURAKO INGENIARI LANPOSTU BAT BETETZEKO LAN KONTRATUDUN LANGILEAREN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

(deialdiaren kodea: 202601aad)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Sozietatearen arduradun teknikoaren mende egongo da hierarkikoki, eta honako eginkizun hauetakoren bat bete ahal izango du:

- Sozietateak edo beste entitate elkartu batzuek edo antzekoek konpromiso hori duten zonetan mantentze lanak planifikatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko lanak egitea.
- Industrialde eta industria nabeetako, araztegietako, sareetako eta instalazioetako proiektuak garatzen eta obrak gauzatzen parte hartzea, bai eta sozietateak egiten duen beste edozein garapenetan ere.
- Segurtasun eta osasun planaren, kalitatea ziurtatzeko planaren, ingurumen planaren eta agintzen zaizkion beste plan batzuen kontrola eta jarraipena.
- Hierarkian gorago daudenek agintzen dizkioten gainerako egiteko guztiak, lanpostuari eta titulazioari lotuta egonez gero.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek oinarri orokorren 3.1) puntuan eskatzen diren agiriak bidali behar dituzte posta elektronikoz helbide honetara: 202601aad@qualisconsultores.es.

Eskaerak aurkezteko epea **2026ko uztailaren 5era arte** izango da, **egun hori barne**.

HIRUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUA DISEINATZEA ETA PROBAK BALORATZEA:

1. FASEA: GAITASUN TEKNIKOAREN BETEKIZUNAK, ESPERIENTZIA. (Gehienez, 50 puntu)

1.1- GAITASUN TEKNIKOAK

Betekizuna: Ingeniaritza Zibil edo Industrialeko Gradua
edo
Herri Lanetako/Industriako Ingeniari Teknikoaren titulua

Puntuazioa: nahitaezko betekizuna.
Egiaztatzea: kasuan kasuko titulua aurkeztuta.

Betekizuna: B motako gidabaimena.

Puntuazioa: nahitaezko betekizuna.
Egiaztatzea: kasuan kasuko txartela aurkeztuta.

Betekizuna: euskarako B1 maila.
Puntuazioa: nahitaezko baldintza.
Egiaztatzea: kasuan kasuko titulua aurkeztuta edo egiaztatzeko proba eginda.

1.2.-ESPERIENTZIA:

Betekizuna: 2 urtetik gorako esperientzia izatea eskatutako titulazioaren berezko zereginetan (ez dira aintzat hartuko bekak, praktikak eta esperientzia irakaskuntzan, ikerketan eta antzekoetan).
Puntuazioa: nahitaezko baldintza.

Egiaztatzea: CV-a aurkeztuta egiaztatzea, eduki profesionalen zinpeko adierazpena eta lan bizitza eguneratua.

1.3.- ESPERIENTZIA ETA PRESTAKUNTZA LANPOSTUKO LAN ESPEZIFIKOETAN (Gehienez 50 puntu)

Betekizuna: urbanizazio eta sareen **mantentze lanen kontrol teknikoko** lanpostuetan aritu izana.

Puntuazioa: 20 puntu.

Betekizuna: hirigintzako zein eraikuntzako industria garapenetako **obrak kontrolatzeko** eginkizunekin lotutako lanpostuetan aritu izana.
Puntuazioa: 20 puntu.

Betekizuna: hirigintzako zein eraikuntzako industria garapenetako **proiektuak kontrolatzeko** eginkizunak dituzten lanpostuetan aritu izana
Puntuazioa: 10 puntu.

1.3 puntuko betekizun guztiak egiaztatzea: curriculum memoria, esperientzia zehaztuta eta baloratu daitekeen jarduera bakoitzean emandako denbora tarteak banakatuta (gehienez ere, 10 orrialde, Roboto letra tipoan eta gutxienez 10eko tamainan).

2. FASEA: HIZKUNTZEN BETEKIZUNA. (Gehienez, 10 puntu)

2.1.- EUSKARA

Betekizun baloragarria: C1/C2
Puntuazioa: 5 puntu

Betekizun baloragarria: B2
Puntuazioa: 2 puntu

2.1.- INGELESA

Betekizun baloragarria: C2
Puntuazioa: 5 puntu

Betekizun baloragarria: C1
Puntuazioa: 2 puntu

Betekizun baloragarria: B2
Puntuazioa: puntu 1

2. faseko betekizun guztiak egiaztatzea: dagokion titulua aurkeztuta.

3. FASEA: LANPOSTURAKO EGOKITASUNARI BURUZKO PROBA

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa** izango da **(GAI – EZ GAI).**
- 1. eta 2. faseetako emaitza orokorra kontuan hartuta puntuaziorik onena lortu duten 15 izangaiei egingo zaie proba.
- Nortasunari eta gaitasunei buruzko proba psikometriko bat edo gehiago egingo dira izangaiak lanpostuaren profilera eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren baloratzeko.
- QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SL sozietateak txosten oso bat egingo du, 15 izangai finalistei elkarrizketa egin ondoren.
- Gai diren izangaiak hurrengo fasera igaroko dira.

4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA (gehienez 60 puntu) eta PROBA TEKNIKOA (gehienez 30 puntu)

- **Nahitaezkoa** da.
- Elkarrizketa pertsonala eta proba teknikoa 1. eta 2. faseen ondorioz hautatutako pertsonei egingo zaie.
- Proba teknikoa 3. faseko lanposturako egokitasunari buruzko probaren deialdi berean egingo da. Proba horren balorazioa 4. fasean egingo da. Proba teknikoa baloratzean, probako gaiei buruz zenbateraino dakiten baloratuko da. Gai horiek lotura izango dute hautaketaren xede den lanpostua betetzeko izan behar den gaikuntzarekin.
- Hautaketa epaimahaikideek egingo dute elkarrizketa, AGAren egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko trebetasun orokorrak eta zeharkakoak. Elkarrizketa bat baino gehiago egin ahal izango da, hautaketa organoak hala erabakitzen badu.
- Elkarrizketa horretan honako gaitasun eta ezagutza hauek baloratuko dira:
    - Enpresako taldean integratzea eta elkarlana.
    - Antolatzeko gaitasuna.
    - Komunikazio trebetasunak.
    - Ekimena.
    - Berrikuntzaren aurreko jarrera.

- Lanpostuaren eginkizunei lotutako beste ezagutza batzuk, betekizun gisa definitu ez direnak.

- Elkarrizketaren puntuazio osoa neurtutako konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioen batuketa izango da. Konpetentzia bakoitza bikaintasuna (10 puntu) eta ez-gaitasuna (puntu 1) bitartean baloratuko da.
- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Elkarrizketaren eta proba teknikoaren balorazioa batera jasoko dira aktan.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
50	10	Ez dagokio	90	150